



## Ez da hau, adiskideok



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**E**z da hau, adiskideok, euskaldunon etxea, aspaldi agindu zitzaiguna. Es-tres batean bizi gara egunero gure etxe, kale, taberna eta inguruetan. Ezin geurean aritu, ezin euskaraz bizi euskal herrietan. “*¡En castellano!*”, edo “*¡En français s’il vous plaît!*”. Ez dute ulertu nahi “kafe bat” eskatzen duzunean, atzamarrez *bat* seinalatuz ere ezin dute ulertu, nonbait. Hogei urtez herriko kontsultan dagoen medikuak ez daki euskara eta ez du ikasteko asmorik. Zertarako?

Ez da horrela, jaun-andreok. Parla-mentu eta gobernu anitzetan luze diharduzuenok agindu zeniguten: “Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”. Zuen legea da hau, eta ez naiz orain sartuko “Euskal Herria” eta “Euskadi” oinarritzko nortasun kontzeptu horien artean egiten duzuen erabilera maltzurra aztertzeraz, baina gure hizkuntzari eta gaztelareri buruz hor agertzen duzue, gaur egun, amarru iluna eta gezur borobila da. Amarrua, zeren esaten duzue esanda ere, ezkutatu egin duzue printzipala: gaztelararen edo espainiararen ezagutza derrigortu egin duzuela lege, agindu, epaile eta zigor astunen bitartez Hego Euskal Herri osoan (beste horrenbeste frantsesa Ipar Euskal Herrian). Eta gezurra, zeren zuek “Euskadi” deitu nahi duzuen bertsio murriztuan bertan ere ez baitugu euskaldunok euskara erabil-

Mende erdi egingo dugu laster, eta hemen “elebidun” bakarrak gu geu gara, eta elebakar erdaldun bihurtzeko trantzean jartzen gaituzte egunero

tzeko eskubiderik ez aukerarik. Zuek gobernatzen duzuen eremu honetan, itolarrian eta ozta-ozta bizi gara euskara eta euskaldunok.

Nola konponduko dugu hau guztia? Badira gure artean “erdaldun taktikoak” dei genitzakeenak. Erdara behin-behinean erabiltzea proposatzen digute, era horretan apurka-apurka elebakarrak konbentzitzeko elebidun bihur daitezzen, eta orduan, bigarren jauzian, guztiok erdaretatik euskarara aldatu eta kito!, denok euskaldun.

Baina mende erdi egingo dugu laster, eta hemen “elebidun” bakarrak gu geu gara, eta elebakar erdaldun bihurtzeko trantzean jartzen gaituzte egunero. Porrota, beraz.

Baina hori nabarmendu denean, diskurtsoa berritu egin dute: badaezpada-ko soziologoak kontratatu dituzte, eta

arlo akademiko-zientifikoaren eraztun eta *bitolak* jarrita, esaten digute orain ez garela egoskor jarri behar “esentzialismo identitarioan”, azken finean euskara ez dela horren garrantzitsua, “multikultural” (?) bihurtzeak baduela bere xarma, eta beste hainbat arazo daudela euskararen gainetik, hala nola “ongizate estatu demokratikoa”, arrisku bizian ikusten dutena. Azken horrek gogora ekartzen digu tentelentzako lelo hura: “Zer duzu nahiago, mediku ona ala mediku euskalduna?”. Soziologiak ez du oso aurrera egin gurean, nonbait.

Zer bide hartu behar dugu, orduan? Esperientziak eta zientziak erakusten digutena. Dagoeneko, bietatik ikasi baitugu nahikoa. Praktikan jartzea besterik ez zaigu falta. Euskaldunok badugu horretarako “masa kritikoa” nahikoa, esan ohi den moduan. Kualifikatua, eta kuantifikatua. Bagara nor, bagara non, bagara zenbat. Elkartu, eragin, ekin behar dugu. Ez dugu gaztelaraz edo frantsesez aritzeko obligaziorik. Euskaraz aritzeko aukeraz baliatu behar dugu nonahi. Euskara erabiltzeko gai bagara, ez erabili erdara. Euskara ez dakienak ikasteko premia senti dezala. Eta bertoko agintariei, hautagaiei, arduradunei agindu euskaraz bizitzeko baldintza osoak indarrean jar ditzatela. Euskal kulturaren *polisistema* osoan, komunikabide publikoetan, hiri eta herrietako paisaia publiko eta pribatuetan, administrazioan, bizitzaren arlo guztietan. Euskara Euskal Herri osoaren berezko hizkuntza bakarra dugulako. ●